**Etxebarria** Hamar urte bete ditu Antsotegi hotelak 4

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU ETA BUSTURIALDEA **hitza** info

**Martitzena, 2012ko apirilaren 3a** III. urtea. 252. zenbakia. **www.lea-artibaietamutriku.info-www.busturialdea.hitza.info**

# Roman Herzogek eta Lokarrik hartuko dituzte apirilaren 26an Gernika Sariak

Alemaniako presidente ohia eta akordioaren, kontsultaren eta berradiskidetzearen aldeko sarea saritzeaz gain, udalak aipamen berezia egingo dio Gernika Gogoratuz Fundazioari

Urrira bitarteko egitaraua aurkeztu dute; hitzaldiak, erakusketak, zinema zikloa, omenaldiak, hitzaldi-solasak, antzezlanak, inaugurazioak... egongo dira, besteak beste 6

## Gernika-Lumoko udalak aurrera darrai Astran Sormen Lantegia egiteko lanekin

Aldundiak birritan eman du obrak geratzeko agindua, informazio eza argudiatuta; legehausterik ez dela esanda, zuzenketa eskatu dio udalak diputazioari 6



Parte hartzaileak arineketan. E.U.

## Ionut Zinca eta Nerea Amilibia izan dira azkarrenak Urban Trailean

Imanol Goñi natxiatuarra izan da Busturialdeko lehen sailkatua Gernika-Lumoko lasterketan; antolatzaileak pozik agertu dira 3

## Bermeoko denden erakusleiho den webgunea, jada martxan 7



ALBERTO X. JUAREZ

➜ **Ehunka lagun, hamaika pintxo.** Arrakastatsua izan da, beste behin ere, Mutrikuko Berdel Eguna. Eguraldia bidaide, berdelagaz egindako pintxoak dastatu ahal izan zituzten jaian bildutako ehunka lagunek. Jarri-Toki jatetxeko sukaldaria ageri da irudian, egunerako errezeta berezia prestatzen duen bederatzi sukaldarietako bat. 5




